

1998ko kutunenak

Parisen asteburu bat zozketatuko dugu parte hartzaileen artean

Urtero bezala, hemen gaude berriro urteko laburpena izan nahi duen bozketarekin. Parte hartu nahi baduzue, badakizue zer egin behar duen: atal bakoitzean erantzun bat eman (1998koa izan beharko du), eta ondoren EGUNKARIA-ko erredakzio nagusira bidali (Gudarien etorbidea z/g 20.140 Andoain). Gutunazalean

barkatu -Urteko kutunenak idatzi.

MUSIKA

▶ Euskal diskorik gustukoena

▶ Euskal talde/abeslaririk gustukoena

▶ Euskal talde/abeslari berririk gustukoena

▶ Nazioarteko diskorik gustukoena

▶ Nazioarteko talde/abeslaririk gustukoena

▶ Urteko kontzerturik gustukoena

BERTSOLARITZA

▶ Bertsolaririk gustukoena

▶ Gazte bertsolaririk gustukoena

ANTZERKILARITZA

▶ Euskal antzezlanik gustukoena

▶ Gizonezko euskal aktorerik gustukoena

▶ Emakumezko euskal aktorerik gustukoena

LITERATURA

▶ Euskal libururik gustukoena

▶ Euskal idazlerik gustukoena

▶ Idazle gazterik gustukoena

TELEBISTA IRRATI-ZINEMA

▶ Telebista saiorik gustukoena

▶ Irrati saiorik gustukoena

▶ Filmik gustukoena

BESTELAKOAK

▶ Urteko berririk onena

▶ Urteko berririk txarrena

▶ Gazte ekimenik gustukoena

▶ Urteko gaztea

Xoxategiren okupazioaren aldeko ekimenak, Hernanin



▶ Jagoba Manterola

Hernaniko Xoxategiren alde

Herrian dagoen lokal gabezia kontuan izanik, joan den abenduaren 27an BBV-ren lokal huts bat okupatu zuten Hernaniko gazteek. Plaza Berriko etxea —Xoxategi izen egokia jarri diote— okupatzean hainbat ekintza egin zituzten gazteek, baina etxearekin zer gertatuko den ez dakite. Izan ere, Udalak proposamen bat egingo du gaur, eta BBVk, desalojatzeko salaketa jarri badu ere, gaur arte itxaroteko prest azaldu da. Hori dela eta, okupazioaren aldeko ekimen guztietan parte hartzera deitu dituzte herritarrek Xoxategikoek.

Hitzaldiak

Komando autonomoak: una historia anticapitalista' liburuaren aurkezpena. Azkoitia. ■ Bihar Azkoitiako Mataderoan aipatu liburuaren aurkezpena egingo du Ritxi Lizartzak, liburuaren egileetako batek. Arratsaldeko 20:00etan izango da.

Lehiaketak

Portugaleteko komiki lehiaketa. ■ Portugaleteko Santa Clara kultur elkarteak Portugalete Hiria komiki lehiaketa jarri du abian. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 15ean amaitzen da, eta, informazioa jaso nahi baduzue, helbide honetara jo behar duzue: Santa Clara kultur elkartea, Kultura saila, Casilda Iturrizar kalea, z/g, 48920 Portugalete. Telefonoa hau da: 94-4729220.

Imaginarock 99. ■ Cadena 100 irrati kateak eta Espainiako Egile eta Argitaratzaileen Elkarteak (SGAE) Imaginarock lehiaketa jarri dute abian. Irabazleak 2.000.000 pezetako saria jasoko du, eta disko bat grabatzeko

erabiliko du. Bakarlari eta taldeek bi eta bost minutu arteko hiru abestiz osatutako maketa bidali behar dute urtarrilaren 16a baino lehen Cadena 100eko emisora batera. Horrekin batera, izenemate txartela eta argazki bat aurkeztu behar dira.

Jardunaldiak

Soraluzeko Gaztetxea. ■ Hona hemen aste honetan Soraluzeko Gaztetxean egingo diren ekintza eta ekitaldiak: gaur, osteguna, herriko mendizaleek dispositiba saioa eskainiko dute 21:00etan; bihar afari herrikoia izango da 21:30etan, eta ondoren Guillermo Segurola txiste kontalaria ari-

tuko da. Naun taldeak joko du etzi, 22:30etan, eta igandean Hies Ekimenaren bideoa eta solasaldia izango da, 18:30etan.

Lanpostuak

Administrazio laguntzailea. Dulantzi. ■ Dulantziko Udalak administrazio laguntzailea kontratazko deialdi publikoa egin du. Aurkeztuko direnek LH1 izan behar dute. Izena emateko azken eguna hilaren 10a da.

Udaltzainak. Berango. ■ Hiru udaltzain kontratatuko lan eskaintza egin du Berangoko Udalak. Ikasketa maila LH1 ekoa da, eta eskerak egiteko epea hilaren 10ean amaituko da.

Internet en irristatzen

irristatzen@egunkaria.jalgi.com

jabi zabala

Okupazioa

El Laboratorio ezingo dute saretik eraitsi

tualak «zutik irauen du», ziberespazioan. «Jakinaren gainean izango zara, Embajadoresko okupa deslojatu dutela. Asteartean, goizeko zortziak aldera, behera zihoran etxeko atearen zalapartak iratzarri ninduen, oharkabean, aurretiaz abisatu barik. Laster konturatu nintzen *lur erre*a gisako deslojamendua izango zela, eskuetan nuena soilik salba nezakeela jakin nuen. Segundo gutxitan erabaki behar izan nuen zer zen niretzat garrantzitsuena. Utzi nuen argazkiak, kartak, eta olerkiak. Utzi nuen marihuana, arropak, liburuak, musika eta beste guztia. Garrantzitsuagoa iruditu zitzaidan denona zena salbatzea, jendearen maitasuna, elkarrekin egoteko ahalmena

eta zentroa beste espazio batean berriro abiatzeko aukera salbatzea. Hortaz, arlo telematikoko ordenadore bat hartu nuen. Ez zidaten besterik ateratzen utzi».


Horrela dio bertako bizilagun batek. Goiz horretan, ustekabean, ehunka polizia agertu zen Lavapies auzoan. «Ondo kalkulatuak operazioan, gehien arretan loterian zegoenean», diote.

El Laboratorioren helbidea

El Laboratoriok, beste hainbat ekintzaren artean, webgune osatua eta nahiko aktiboa sustatzen duen arlo telematikoa zeukan, dauka. Madril aldean Egin itxtearen kontrako elkartasunean nabarmentzen ziren. Premonitoria agian.

El Laboratorio

■ <http://www.nodo50.org/laboratorio/lab.htm>



Iragan abenduaren 22an, Madrilgo El Laboratorio gune okupatuaren deslojamenduari eta ondorengo erasipenarekin bi urteko esperientzia aberasgarri baten amaiera heldu zen. Halabaina, kokaleku fisiko berri baten esperoan, Laboratorio bir-

